

4. Patxi Alaña Arrinda: Iruña Okako idazkunen garrantzia



1. Hizlariak eta iturriak
2. Hasiera: 2005 eta 2006
3. Filtrazioa eta erantzuna
4. Agertutakoaren azterketa
5. Zalantzak
6. Erantzunak
7. Adierazpena
8. Ikerketa talde osatua
9. Bibliografia



1. HIZLARIAZ ETA ITURRIEZ

Hitzaldi hau emateko, pertsonarik egokiena Iruña Okako Ikerketa Batzordeko bat izango zela pentsatu genuen antolatzaileok. Tamalez, ezin izan dute parte hartu, indusketen azterketa ofizialaren emaitzak publiko egin arte, hedabide edo modu publiko batez agertzerik ez dutelako. Ondoren, gai honen inguruan ekarpenak egin izan dituzten bi pertsonekin kontaktatu dugu baina baten osasun egoera eta bestearen azterketa amaitu arteko diskrezioa dela eta, ezin izan dute hemen egon hizlari gisa.

Azkenik, talde antolatzailearen izenean hemen nauzue, orain arte egunkari eta interneten agertutako informazioaren laburpena egiteko asmoz. Ondoren, galderak eta ekarpenak egiteko aukera egongo denez, gai sakondu ahal izango dugu denon artean. Datorren urteko Biltzarrean gai honekin jarraituko dugu eta, horretarako, lehen mailako adituak izango ditugu hizlari.

Hemen agertzen diren testuak prentsa edo internetetik jasotakoak dira, euskaraz zuzenean eta beste batzuk guk itzulitakoak. Beraz, eskerrik beroenak gai honi garrantzia eman eta horiei buruz informazio egokiak zabaltzen ahalegindu diren hedabideei.

2. HASIERA: 2005 ETA 2006

Eusko Trenek emandako laguntza ekonomikoari esker, Eliseo Gilek talde bat osatu eta indusketei ekin zieten 2005 eta 2006 urteetan, karistiarren hiruburuan: Iruña Okan.

Pompeia Valentina izeneko etxe batean hasi ziren indusketak. Domus horretan 52 m²ko barrunbe batean sabaia jausita zegoen. Seguruenik jaustean beheko guztia zegoen moduan gordeko zuen.

Aitzineko sabai hondakinak kentzean, behean, zapal dutako buztinezko zoru baten gainean denetarik zegoen: hondakinak, ontzi zatiak, sigillata hispaniarra, sigillata galiko apur bat, mahai eta sukaldeko zeramika arrunta, horma zatiak, ponderak, argizulo zatiak eta fusaiolak. Zati gehienak batez ere gela horren erdian zeuden kokatuta.

Hondakin horietako asko arbeltxo gisa erabiliak izan ziren, hau da, ostrakak ziren, keramikazkoak zein hezurrezkoak. Arbeltxo moduko horietan, eskola munduko idazkunak zeuden: abezedarioak, idazle klasikoak, jainko-jainkosak, Eneidaren gaiak, etab. Eguneroko bizitzako irudiekin egindako marrazkiak ere aurkitu ziren: nekazariak lanean, otoitz egiten elizan, erretratuak, karikaturak...

Horrekin batera erlijio kristauaren testu eta irudiak. Eta egiptoar historia, idazkera, kultura eta sinismenak ere zituzten zatiak. Europako hain iparraldean inoiz ez zen horrelakorik ikusi.

Gela hori *paedagogium* bat zen, hau da, familia aberats baten seme-alabek ikasten zuten lekua.

Pompeia Valentina etxean 270 idazkun aurkitu ziren, euskarazko eta latinezko hitzekin. Gero beste indusketetan egindako aurkikuntzekin, guztira 800 idazkun jaso dira.



3. FILTRAZIOA ETA LEHENENGO PRENTSAURREA: III ETA IV. MENDEEN ARTEKO EUSKARAZKO HITZAK EI DIRA

a) Filtrazioa

Prentsan albiste zirrargarria filtratu zen 2006ko maiatzaren 27an: euskararen zantzuak dituzten idazkunak aurkitu dituzte, erromatar garaikoak izan daitezkeenak. Zehatzago, idazkunak III. eta IV. mendeen artekoak izan daitezkeela zehaztu dute zenbait komunikabidek, eta hori baieztatuko balitz, ezagutzen diren euskarazko idatzi zaharrenak izango lirateke.

Idazkun hauek domus baten aurkitu dituzte: Pompeya Valentina izeneko etxean. Aberatsak ei ziren hori bizi zirenak eta bazuten hezitzaile bat (preceptor) familia horren seme-alabei eskolak emateko. Idazkunak adreiluetan inskribatuta aurkitu dituzte baina beira eta hezur pusketan ere azaldu dira. Toki berean, bestalde, Jesusen bizitzari buruzko irudiak agertu dira.

b) Ikerketa taldearen prentsaurrea

Filtrazioaren ostean, Iruña Okako aztarnategiko arduradunek zuhurtasuna erakutsi zuten 2006ko ekainaren 15ean emandako prentsaurrean. Oraindik hipotesiekin ari direla erantzun dute aztarnategiko arduradunek: «Datuak aurreratzea ikerketaren berezko dinamika hankaz gora jartzea litzateke».

Aztarnategiko arduradunek aipatu zuten, agertutako datu batzuk “zuzenak ez direnez”, argibideak eman nahi izan dituzte. Iruña Okako bigarren multzo epigrafikoan antzinako euskaraz idatzita egon daitezkeen idazkunak aurkitu dituztela baieztatu dute, eta lanerako erabiltzen ari diren hipotesiaren arabera, erromatar garai berantiarrekoak lirateke. Bestelako daturik zabalitzeak ikerketaren garapen normalari kalte egingo liokeela azaldu dute aztarnategiko arduradunek. “Ikerlari garenez, denbora behar dugu aurkikuntza hauek aztertu eta analizatzeko, eta prozesu horretan hainbat ikerketa taldek parte hartu behar dute: arkeologoak, historialariak, filologoak, hizkuntzalariak... Erritmoak direnak dira, eta ezin gara kanpotik presionatzen hasi”.



Beste arduradunek ere, Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburua den Miren Azkaratek esaterako, zuhurtzia eskatu zuten zabaldutako informazioaren inguruan: «Sailburu baino gehiago, euskal filologo gisa, zuhurra izan nahi dut aurkikuntza hauen gainean». Azkaratek denbora eskatu zuen ikerketarako: «Behar duten denbora guztia eman behar diegu gure adituei, onak direlako, iker dezaten. Gero aterako ditugu Veleian aurkitutakoaren gaineko ondorioak».



Hala ere, zerbait aurreratu digute prentsaurrean. Adibidez, Arabako Iruñako aztarnategian egindako aurkikuntzak benetakoak ei direla esan dute Henrike Knorr euskaltzainak eta Joaquin Gorrotxategi filologoak. Eliseo Gil, indusketetako zuzendaria, erlijioarekin lotutako hitzak ezezik egunerokoak ere agertzen direla, eta horien artean esaldiak ere badaudela aipatu du. "Hemen hitz multzo bat dugu, eta eguneroko hitzak dira. Horrek esan nahi du idatzi egiten zela V. mendean, VI. mendean, edo lehenago" zehaztu du Gorrotxategik.

Arduradunek bi taldetan banatu dituzte goian aipatutako eleak: batetik, arruntak, eta bestetik, erlijioarekin lotutakoak. Lehendabiziko taldean daude, besteak beste, "zuri urdin gori" eta "urdin isar" berbak. Aditzak ere topatu dituzte: "edan ian lo" eta "ian ta edan".

Bigarren taldean, berriz, erlijioarekin lotutakoak daude: "geure ata zutan" esamoldea, esaterako. Adituek uste dute hitz horiek agurtzeko erabiltzen zituztelako aitzinako kristauek. "Jesus, loshe ata ta Mirian ama" eleak ere agertu ei dira. Horiek Familia Santuari lotuta daudela esan zuten arduradunek.

Hitz arruntak	<i>vrđin isar</i>
	<i>zuri urdin gori</i>
	<i>edan ian lo</i> : bizimodu lasairako aholkua
	<i>Gori</i> : "gorri", menturaz
Erljioarekin lotutako hitzak	<i>Jaun</i>
	<i>geure ata zvtan</i> : "geure Aita zuengan"
	<i>iesvs, ioshe ata ta mirian ama</i> : "Jesus, Josef aita eta Maria ama"

Egunerokoak eta esaldietan egituratuak egoteak gainera garrantzia eransten dio aurkikuntzari. "Pentsatzen genuen euskaldunak idatzietatik aparte geundela, eta ja ez gaude horren aparte. Hizkuntza askotan ez da ezer idatzi. Hemen dugu guk hitz multzo bat, eta eguneroko hitzak dira. Akitaniako aurkikuntzak zaharragoak dira, baina euskararen gainean eraikitako izen propioak dira. Hori da orain arte genekiena, baina hau besterik da. Batzuk solte baina beste batzuk perpausetan" zehaztu du Gorrotxategik.

Joan den maiatzaren 7an aurkikuntzei buruz hitz egin eta Henrike Knörrek aitortu zuenez ez zuen ondo lo egin hurrengo 15 egunetan, "ia 500, 600 urte aurreraten baita gure kronologia".

Aurkikuntza honek zalantzan jarri ditu orain arteko teoriak. Izan ere, Okako arkeologoen usteak baieztatzen badira, euskarazko lehen idazkiak III. eta VI. mende artekoak liriteke, uste zena baino mende batzuk lehenagoak, beraz.

Dena den, zuhurtziaz jokatu behar dela esan dute filologoek. Komunikabideetan izan diren filtrazioekin ez daude gustura, izan ere, horiek ez baitute ikerketa oztopatu besterik egiten. Arkeologoen, historialarien, hizkuntzalarien eta zientzialarien oraindik lan asko dute egiteko; zein mendetakoak diren zehazteko, haien testuingurua ezagutzeko, eta esan dutenez, lan horiek guztiak amaitu bitartean ez dute aurkikuntzei buruz hitz egingo, urria edo azarora arte.

c) Biharamuna

Gaia pil-pilean dago eta Eliseo Giel zenbait hedabidek elkarrizketatu dute. Prentsaurrean aipatutako Pompeya Valentina ondoko beste domus bateko aurkikuntzaz ezin duela gehiagorik gehitu esan du. Zera gehitzen du: bigarren aurkikuntzak lehenengoak baino eragin handiagoa izango duela, bai hemen bai munduan. *Berria* egunkariak elkarrizketatu zuen 2006ko ekainaren 20 eta hemen jaso dugu:



“Aurrerantzean ezusteko gehiago eman ditzake Arabako Iruña-Veleiako aztarnategiak. Hala uste du arkeologoaren lan taldeko buru Eliseo Gilek. Litekeena da euskarazko idazkun gehiago aurkitzea. Iruña-Veleiaren puzzlearen fitxak osatzeko pazientzia behar da. Arabako aztarnategian urte luzez garatu den egitasmo arkeologikoaren zuzendari Eliseo Gilek ikerketa historikoek eta arkeologikoek behar duten denbora aldarrikatu du behin eta berriro. Halere, azken asteotan publiko egin diren aurkikuntzak sekulako balorea dutela azpimarratu, eta idatzi gabeko kapitulu ugari daudela esan du.

Nola atzeman zenituzten aurreko astean aurkezturiko multzo epigrafikoak?

Aurreko urtetan hainbat grafiti agertu ziren Iruña-Veleian. 200 idazkun inguru bilduta genituen, baina gehienak ohikoak ziren halako egitura eta kronologia duten aztarnategietan. Esate baterako, zenbait piezatan eta baxeratan jabeen izenak agertzen ziren. Hori oso ohikoa da, baina baziren beste bitxikeri batzuk indusketen emaitzak bereziak izan zitezkeela adierazten zutenak.

Zergatik bereziak?

Herri honetan eztabaida historiografiko bat dago kristautasunaren ezarpenaren eta garapenaren inguruan, historikoki oso gai garrantzitsua da. Ildo horretan, duela urte batzuk aztarnategian pare bat grafiti eta idazkunak aurkitu genituen kristau ikonografia zutenak, Euskal Herrian agerturiko zaharrenak zirenak. Beraz, alde aurretik arrastoak bagenituen, eta zerbait gehiago aurkitzeko itxaropena ere bai. Lehenbiziko multzo epigrafikoaren lehen piezak agertu zirenean, iragan uztailan, gai ezberdinen erreferentziak agertu ziren: hezkuntza mundukoak, eguneroko bizimodukoak... Gauza isolatuak ziren, baina egunak aurrera joan ahala indusketak aurrera egin zuen, eta aurkikuntzak errepikatzen ari zirela ikusi genuen.

Zenbait hedabidek gaia jorrazteko orduan izan duten arinkeria salatu duzue. Espekulazioak traba bilakatu daitezke?

Argi dago disfuntzioa dela, gure lana eta informazioa kudeatzeko egutegia hankaz gora jartzen dutelako. Analitika guztiak eta froga guztiak ditugunean aurkikuntzak edo emaitzak aurkeztea gustatzen zaigu, datuak egiaztatu ostean. Zientzialari eta aditu asko ez dago ohituta presiopean lan egiten, eta are gutxiago presio mediatikopean, beraz disfuntzioa eragiten du. Helarazi nahi dugun mezua da ikerketa hauek guztiak beren erritmoa izan behar dutela, gure lana egin behar dugu, ahalik eta hobekien egin behar dugula.



Agertutako lehenbiziko multzo epigrafikoaren harira, hieroglifikoaren agerpena nabarmendu duzu, besteak beste. Pompeia Valentinako domus-ean irakasle egiptoarra aritzen zela azaldu duzu. Nola ondorioztatu duzue hori, espekulazioa al da?



Ez. Lan hipotesia da hori, ez da espekulazioa. Kasu honetan, badakigu aintzineko kulturaren mundu helenistikoak oso pisu handia zuela. Hortaz, Erromako Inperioaren garaian, kalitatezko irakaslea nahi zuten familiek Grezian edo kultura horren eragin guneetan bilatzen zuten. Berdin gertatzen zen beste arlo askotan: medikuntzan, filosofian, etabar. Hortaz, Veleiako familia aberats batek hezkuntza helenistikoa duen irakasle bat izatea ez da harrigarria, hiri gunea delako, aberatsa delako. Aurkikuntza hori urrats txikia da, baina oso inportantea. Izan ere, ez da pieza bat Afrikatik edo beste nonbaitetik ekarri dutela, baizik eta pertsona bat delako bidaia egin duena. Gainera agertu diren idazkunek hipotesi hori berresten dute, hieroglifikoak daude, eta idazkUNETAN Egiptoko hiri baten inguruko aipamena agertzen da: Hermopolis hiria agertzen da, hain zuzen.

Hala ere, kristau munduarekin lotutako idazkunak nabarmendu dituzue multzo epigrafiko horretan. Izan ere, III. mendeko kalbarioa agertu da, munduko zaharrena

Bai. Oso garai berezia da, III. mendearen erdian gaude. Kristautasunak pairatu zuen jazarpenaren azken urteak dira, eta kristau munduaren ezarpena iragarri daiteke. Veleian, kristautasunaren ezarpen gradua eta horren zentzua ezin dira zehaztu, eta ausartegia litzateke horretaz hitz egitea. Nolanahi ere, kristautasunaren lehenbiziko agerpena da, eta ondorioz, garai horretan bat egiten dute antzinaldi grekolatinoa eta paganoa ekialdeko kulturarekin harremana duen kristautasunarekin

Aurkitutako multzo epigrafikoak Iruña-Veleiaren sorrera eta garapenari buruzko lan hipotesiak aldatzen ditu?

Iruña-Veleiaren izaera berresten dute. Iberiar Penintsulako iparraldean dagoen Astorga-Bordele bide nagusiaren itzalpean hazten den hiri garrantzitsua dela egiaztatzen du. Are gehiago, tresneriak elkar trukatzear gainera, ideien elkar trukea ere bazegoela esaten ari gara, eta hori da inportanteena. Erromatar Inperioaren beste txoko batzuetan bezala, Iruña-Veleia bazterreko zonaldea zen, baina hala ere, komunikazio sistemaren bitartez denetatik iristen zen, tresneria eta ideiak.

Bigarren multzo epigrafikoan euskarazko idazkunak agertu dira. Garai batean, aldi berean, bi kultura, hizkuntza eta bizimodu izan ziren Veleian?

Bai. Hori lehenengo multzo epigrafikoan ere antzeman dugu, eta hizkuntza exotikoagoak aurkitu ditugu. Baina ez gara zergatik harritu behar. Iruña-Veleia ez da hiri militarra, ez da Penintsulako beste batzuk bezala beteranoen hiria. Hemen talde indigena bati buruz ari gara, Iruña-Veleia Erromatar Inperioaren itzalpean garatu zen herria da. Ikerketa arkeologikoari esker jakin izan dugu, esate baterako, hileta errituetan jarraitutasuna dagoela Erromatarren aurretiko herriaren eta Erromatar Inperioko hiriaren artean. Finean, jarraitutasun hori maila guztietan ematen da.

Hortaz, euskarazko idazkunak agertzeak Erromanizazioaren aurreko herriarekin zerikusia du.

Historialari gisa hitz egiten dizut, eta hizkuntzalaritzaren interpretazioak filologoen eta hizkuntzalarien esku utziko ditut. Erromako Inperioaren aurretik Iruña-Veleian herri bat dagoela argi dago, Euskal Herriko herririk inportanteena dela argi dago. Biztanleria indartsua zuen, maila ekonomiko altua eta harreman kultural handiak zituen. Kultura materialari dagokionez, Kristo aurreko I. milurtekoan, besteak beste, goi-lautadatik eta Ebroko bailaratik hainbat eragin jasotzen ditu. Azkenean, Erromaren eraginpean oso hiri inportantea osatzen da, sekulako etorkizuna duen hiria. Herriak eta hiriak harremana dutela argi dago, errealitate berdinez ari gara, denboran jarraitutasuna duen errealitatea da.

Euskarazko idazkun gehiago agertu daitezke?

Errealitateak du hitza, logikoena hori litzateke.



Noiz jakin ahal izango dugu euskarazko hitzak zein mendekoak diren?

Kasu honetan, aurkikuntzak duen garrantzia eta gaiak piztu duen arreta direla medio, lanak aurreratu beharko ditugu, eta saiaturako gara ahalik eta lasterren emaitzak esku artean izaten, froga analitikoak egiten eta planteamendu koherentea aurkezten.

Iruña-Veleian zehaztutako helburuak bete al dituzue?

Bai eta ez. Multzo epigrafiko hauek aurkitzea eta ikertzea historialari batek bizitzan izan dezakeen helburua da, baina kasu honetan errealitateak helburua gainditu du, eta bapatean, gauza gehiago aurkitu ditugu. Gainera, oraindik, ikerketan atari-atariko urratsean gaude, hau guztia zehaztu behar da, seguruenik datu gehiago agertuko dira ikerketan, eta horiek interpretatzeko aukera mordoa zabaltzen dira. Interpretazio horiek guztiek lagunduko digute egungo historia hobeto ulertzen.

Hortaz, ikerketan eta indusketetan gauza gehiago aurkituko duzuelakoan zaudete?

Gure abantaila da aztarnategiaren ikerketa proiektua abian dagoela oraindik, aurrera jarraitzen duela. Helburuak ez ditugu bete, eta Iruña-Veleian eginen ditugun lanak gehiago emango du, beharbada aurkitutakoan oinarrituz interpretazio ezberdinak egin daitezkeelako, baina seguru nago gehiago emango duela. Gainera, egun, hiriaren zonalde oso mugatua ezagutzen dugu, aztarnategia XVI. mendetik ezagutzen bada ere, ez da jarraikortasunezko ikerketarik egon. Egun, Iruña-Veleiako Zuzendaritza Proiektuari esker hori lotuta dago, landa lana iraunkorra izanen da.

Ikerketa eremua zabaltzeak zentzua izango luke?

Zentzua izango luke betiere jasagarria den arkeologian oinarrituz gero. Hots, gai izan behar gara topatzen dugun informazioa kudeatzeko, eta hor dago koxka. Ez da bakarrik aurrekontu arazo bat, hori ere kontutan hartu behar da, orain finantzaketak onartzen digun ahalegin handiena egiten ari baikara, baina koxka da informazioa behar bezala kudeatzea. Ez luke zentzurik izango landa eremua zabaltzeak, hektarea bat gehiago zabaltzea eta 500 boluntario lanean jartzea, ondoren informazio hori prozesatzeko 50 urte behar baldin badituzu. Proiektu askotan hori gertatzen da, funts arkeologiko batzuk pilatuta daude, ez dagoelako gaitasuna horiek guztiak ikertzeko.

Sarritan esan duzu guztion ahotan dabilen Iruña-Veleiakoaz dela egun batetik bestera sortutako eta garatutako egitasmoa.

Egia da. Lan taldean eginiko lana izan da hori, ni neu talde horren buru nabarmena izan arren. Gainera, gu baino lehenago lanean ibili zirenen lana dago, aztarnategia XVI. mendetik ezagutzen baita. 1980. urtean ikerketa taldea osatu genuen, Araban, Erromatar Inperioaren garaiko eta Erromatar Inperioaren aurreko aroak ikertzeko. Ikerketa ugari egin ondoren, 1994. urtean Iruña-Veleiako aztarnategiaren hiri alderdia ikertzeko bildu ginen, eta arlo horretan sakontzeko. Ikerketa udako kanpainen bitartez burutu genuen, Arabako Foru Aldundiaren laguntzaren bitartez. Ondoren, 2001. urtean Eusko Trenekin sinatu genuen hitzarmenari esker, indusketetan egonkortasuna lortu genuen, eta Iruña-Veleiako Zuzendaritza Plana landu genuen. Lan horri esker eman dira egungo aurkikuntzak. Hogei urtez eginiko lanari buruz hitz egiten ari gara.

Ikerketa zientifikoak bere erritmoa behar duela nabarmendu duzu.

Bai, hala da. Une honetan informazioaren kudeaketari ekin behar diogu, arkeologiak eta ikerketa historikoak bere erritmo propioa dute. Badira gauza asko ezin direnak bapatean zabaldu. Batzuetan, aldiz, posible da hori egitea, adibidez, Aralarren iruinari bat topatuz gero, neurtu besterik ez duzu egin behar, eta ondoren aurkitu duzula esan. Baina beste kasu batzuetan, Iruña-Veleian, ikerketa historikoak eta arkeologikoak bestelako loturak eta eraginak dituzte. Ez dira isolatutako gertaerak, nahiz eta kanpotik itxura hori izan, hemen elementu asko lotu behar dira, ikerketa osatu behar da. Azkenean, azalpen bat emango dugu, ahalik eta koherenteena. Eta azalpenik ez badugu, azalpenik ez dugula topatu esango dugu, argi eta garbi. Baina hau ez da kristalezko bola bat.





4. PRENTSA- INTERNETEN AGERTUTAKOAREN LABURPENA (ITURRIA: ALICIA CANTO-CELTIBERIA)

a) Euskarazko hitzak

URDIN ISAR: izar urdina edo urdinska. Izartxo batez bereiztuta daude eta keramika sigilatan daude idatzita.

GORI: gorri

GURE ATA: Otoitz zati bat, Aita gurearena izan daitekeena.

IAN EDAN LO

IESUS, IOSHE ATA TA MIRIAN AMA: familia santua



b) Argitaratutako irudiak eta azalpena



1. IULOren GENEALOGIA

Irakurri: **ANQVI/SIIS ET VE/NVS --> ENII/AS ET CRII/VSA --> IVLL/O**, hau da, *Anquises eta Venus (ezkontzatik) Eneas eta Preusa (etorri ziren eta horiengatik) Iulo (jaio zen)*". Venusen izenik ezagunena Ascanius da, Ascanio (Iulo congnoimen gehitua da). Virgilio Aeneis-en izen hau erabiltzen du, bait beste zenbait idazle erromatarrek ere.

E batzuk, *E etzanez* deritzogun grafiaz egin dira. Epigrafikoki izen zuzenak hauek izango lirateke: **ANCHISA, AENEAS** eta **IVLLVS, IVLVS** edo **IVLO**. Hau da *Iullus* edo *Iulus/Iulo*, idatzi behar zen, Virgilioren Eneidan bezala, baina beti nominatiboan. Idazkunean, ordean IVLLO dago, beraz ez dago ondo. Hiru akats "ortografiko" horiez gain bestelako zenbait gai arraroak ikus daitezke (graikoak eta paleografikoak).



2. BALIZKO IEROGLIFIKO KLASIKOAK

Ikasgela gisa erabiltzen zuten gelan (paedagogium) Egiptoko historia, idazkera kultura eta sinismenak lantzen zituzten. Ramsés eta Nefertiti-en aipamenak agertu dira eta prestakuntza maila handiko batek egin zitzakeen testu hieroglifikoak. Hipotesi bat zera da, irakasle gisa aritzen zen pertsona Egiptokoa izatea, Nilo inguruko herri bat ere aipatzen delako: Hermopolis.

Idazkun batzuek faraonen dinastiaren bat aipatzen dute, *Ramses*, eta hori latinez dago idatzita, *Ramses Setiren* semea zela eta *Nefertiti* ere idatzita dago.

Zalantza asko dago hieroglifiko hauen gainean. Esaterako, J. C. Moreno egiptologoak adierazi du NEFERTITI eta NEFERTARI izenak erromatarren garaian horrela idatzi *izana ez dela posible izan*.






3. EGUNEROKO BIZITZAREN MARRAZKIAK

Marrazkian *VITAE* (E etzana) agertzen da idatzita, *bizitzarena* alegia. Marrazki batzuk zenbait gauza arraroak dituzte eta pertsonak irudikatzeko forma kontzeptuala ere bitxiak dira.

Marrazkien azalpena:

- Goian ezkerrean: emakumea otoitz egiten
- Goian eskumaldean: soldadua eta dorrea
- Behean ezkerrean: astoa eta ortua
- Erdian eskumaldean: ortua
- Behean eskumaldean: bi gizon letrinetan



4. KALBARIOA R.I.P. TESTUAREKIN

Pieza hau garrantzitsuenetakoa izan daiteke, orain arte aurkitutako kalbariorik zaharrena litzatekeelako. Horrek nazioarteko arkeologiaren goneneko mailara igo lezake Iruñako indusketa hau.

Jesus gurutzatua, Golgota mendian, Dimas eta Jestas lapurren ondoan eta bere oinean dauden bi figura, Amabirjina eta San Juan izan daitezkeenak, Kristo osteko III. mendean egin zen marrazki hau, Erromako katakonbetan hirurehun urte beranduago grabatutako kalbarioa baino.

Kristo osteko 300 urte inguruan erabiltzen hasi zen epitafioa agertzen da: RIP (requiescat in pacem), gaur egun ere erabiltzen den lelo bera. Logikoagoa izan zitekeena INRI agertzea *I(esus) N(azarenius) R(ex) I(udaeorum)*... Izan ere RIP hasierako kristautasunaldian gutxi erabili zen, 10 bat adibide daude, 7 Tarracon. Agertutako RIP (*ecessit i(n) p(ace)*) ere izan liteke. Hau sarriagotan agertu izan da baina, hala ere, Kristoren gurutze gainean ez da inoiz ikusi garai horretan.





5. GURUTZILTZEKATZE ANITZAK

Aurkitutako kalbarioaren marrazkiarekin batera, jainko paganoak gurutziltzekatuta aurkitu dira, 'pater nostrum' moduko testu kristauekin. Kristo osteko III. Mendean erlijioen artean aurkakotasun handia zegoen eta besteen jainkoak gurutziltzatzea ohikoa zen irigarri uzteko. Zati honetan ikusten diren biktimak *Vulcano*, *Ceres* eta *Neptuno* jainko paganoak dira.

Alicia Cantok, argazkia oso txikia izanik, iradokitzen du *AMOMO*, Amomus cognomenaren datibo edo ablatiboa izan daitekeena ere agertzen dela *CVRIO* delako horrek oinarri karratuko V bat dauka, nekez sinistekoa. Eta eskuineko beste grafitoetan aurkitutako *E* etzana bada, *TILLV* izan zen, hau da, *Tellu[s]*, Lurra.

Azkenik, bere ustean goiko eskuinaldean *VIIRTVMNO* dagoela dirudi, hau da, *Vertumnus*, landare eta uztak babesten dituen jainkoa.



6. HIRU GRAFIKO BERRI

2007ko abenduan Youtuben jarri zen bideo bat, hiru grafiko gehiago ikusteko aukera ematen zuena (gaur egun ez dago ikusgai). Lehenengoan *VELEIA NOVA* agertzen da, bigarreanean *NEFERTITI NEFERTARI*, beti E etzanak erabili II modukoak.



7. ERROMATAR ETA ERROMATAR AURREKO MATERIALAK, TESTU BAKOAK



c) Irudirik ez duten baina aipatu diren beste zenbait gai

- Zuhaitz genealogikoa. Egiptoar jatorriko irakaslearen ikasle batek egindakoa. Marrazki sinplea da baina **bost seme-alaba, aita eta ama** bereizten dira, antza haurdun egoeran. Marrazki bakoitzaren azpian pertsona bakoitzaren izena agertzen da.
- Maitasunezko adierazpena ere aurkitu da hezur batean.
- Nekazaritza, ume jolasak...
- Latineraren deklinazioak
- Abezedarioa
- Enperadoreen zerrendak
- Eneidaren gai batzuk
- Erretratuak
- Jainko-jainkosen zerrendak, pertsonaia historikoen
- Jaiotza, azken afaria eta Moisés hamar manamenduekin domus arrunt batean aurkitu dira. Azken afaria irudikatzen duen marrazkian hamabi gizon daude mahai baten inguruan eta beheko aldean beste pertsona bat, urkatuta zuhaitz batean dago (Judas).

5. BATZORDEKO ETA KANPOKO BESTE ZENBAIT ADITUK ADIERAZITAKO ZALANTZAK

Joaquin Gorrotxategi (EHUko Hizkuntzalaritza Indoeuroparreko katedratikoa eta Iruña Okako Ikerketa Batzordekidea)

- "Geure ata zutan": Azken hitz hau SUTAN idaztea espero genuen, hilarri euskal-akitaniarretan gizon hitza duten hilarrietan GISON erabiltzen duten moduan.
- "edan" hitzak printzipioz egitura zuzena dauka. Baina "ian" partizipio egitura berdina dauka bilakaera honekin: 'e' 'i' bihurtu da eta ez dakigu 'i' eta 'a' horiek 'ia' bihurtu diren, nik bederen, ez dut uste hain zaharra denik. Dena dela, gauzak atzera aztertu beharko dira...
- Grafia batzuk zalantzak dira. Esaterako, 'loshe' hitzak duen 'h' hori ez dakit zertara datorren. Latineraz eta grezieraz Joseph idazten zen, hau da, 'ph' amaieran eta ez dakit zergatik desagertu den, judutar edo hebraierazko iturri zuzen bat dagoela dirudienean: 'Miriam' izenagatik.



- Testua euskaraz dago baina izenak hebreerazko jatorria dute eta ez latinkristauazkoa.
- Idazmena oso zabaldua bazegoen, normalena etzanez idaztea izango zen, ez letra larriz.
- Beste gauza arraroa 'ta' lokailua 'eta' bihurtzea da mende batzuen ondoren. Niretzat errazagoa da alderantziz, hau da, 'eta' hitzetik 'ta' etortzea. 'zutan' hitzarekin bezala, Iparraldean horrela erabiltzen da baina Hegoaldean, bizkaieraz adibidez, zehazki, 'zugan' da eta filologoek 'zugan' 'zutan' baino zaharragoa dela uste dute. Hau da, testu hauek gure diziplinaren oinarriak mugitu egin dituzte. Ez dakigu garai horretako euskara zelakoa zen baina bai badakigu latina zelakoa zen.



- 'Iesus' hitzaren ondoren koma grafiko bat ikusten da, funtzio sintaktikoarekin. Latinerazko epigrafian ez da horrelakorik inoiz ikusi. Egiptoko faraoiei buruzko aipuak agertzea, arraroa da; kalbario bat agertzea, arraroa da; idazkUNETAN komak agertzea, arraroa da.
- Ostrakak egiazkoak badira ondorio itzelak izango dituzte. Aurkikuntza hauek orain arte izan ditugun ideia eta iritzi asko zalantzan jarri dituzte. Laborategietako analitikak edo informazio arkeologikoa ondo dago baina gaur egungo zientziak dioanarekin bat etorri behar du. Nahiz eta oraingo gauza batzuk aldatu... baina bat etorri behar du.
- Nik ez dut uste benetako idazkunak direnik. Baina egiazkoak ere izan daitezkeela ez dugu baztertu behar.

Joseba Lakarra eta Juan Jose Larrea (EHUko Euskal Filologiako katedratikoa eta Erdi Aroko irakaslea)

"Hizkuntzek eskaileren moduan funtzionatzen dute. Adibidez A formatik B formara pasatzeko 10 aldaketa morfologiko, sintaktiko edo semantikoak eman behar baldin badira, aldaketa horiek norabide bakarrean eta ordena bakarrean baino ez ezin dira egin.

Adibide bakar bat emateagatik, *lankoa* hitzak aditzera emango luke artikularen presentzia IV eta V mendeen artean bazela. Baina kategoria hori akitanieran ez zegoen eta euskarak beranduago hartu zuen hizkuntza erromanikoak eredu gisa hartuta. Harrigarriena dena da IV eta V mendeetan, hizkuntza erromanikoetan artikularen erabilera hedatzeko urte asko falta zirenean, euskarak erabiltzea. B forma, hau da eskaileraren hamargarren maila, bosgarren maila izateko behar diren baldintzak baino lehen gertatuko zen horren arabera" (gaztelatik itzulita).

Juan Carlos Moreno: Egiptoko gaia (Parisko Centre National de la Recherche Scientifique (CNRS) erakundeko egiptologoa)

"**Nefertiti.** Hainbat egiptologo, aditu eta zale agertutako hezurraren argazkia dekodetu nahian ibili dira. Eta azalaren gainean grabatuta dauden izenak dudarik gabe Niifiirtiti eta Niifiirtari direla ondorioztatu dute. Eta zalantzak handiagotu zaizkie.

Jainkosa famatuaren garaian iraultza sozial, erlijioso eta politiko garrantzitsuak gertatu ziren Egipton, eta hura hil eta gero, kontraerreforma moduko atzerapauso orokorra. Agintari berriek Nefertitiren aipamen guztiak kroniketatik desagerrarazi zituzten, eta ez greziarrek ez erromatarrek ezta egiptoarrek ere, ez zuten haren berri izan. XX. mendearen hasieran, eta beste faraoi zenbaiten hilobietan egindako aurkikuntzei esker, jainkosaren izena ezaguna egin zen. Hori nahikoa ez eta izenaren grafiak arazo bat baino gehiago ematen du.

Transkripzio arazoak. Egiptoarrek, semitek bezala, ez zituzten bokalak transkribatzen, eta Egiptoko izenak gaur egun ezagutzen ditugun bezala idazteko araua XIX. mendearen bukaeran erabaki zituzten orduko egiptologoek. www.egiptologia.com webgunean, Nefertiti (edo Niifiirtiti) Nfrtt (edo nfr.u.itn edo nfr.y.ty, grafiari arabera) izenaren egungo transkripzio modernoa besterik ez dela azaldu du. «Ez da inoiz ahaztu behar» idatzi du Morenok, «hautazko sistema horren helburu bakarra izen egiptoarrak errazago ahoskatzea zela, ikerlariak, gehienbat, hizkuntza germaniarrez (ingelesa edo alemana) edo latinez mintzo baitziren, eta horien fonetika oso ezberdina baitzen hizkuntza kamito-semitikoen aldean, hau da, antzinako egiptoeraren familiarren aldean». Laburbilduz: XX. mendekoa dela, antza, Nefertiti izenaren transkribapena."



6. ZALANTZEI ERANTZUNAK: KNÖRR ETA IKERKETA BATZORDEA

a) Henrike Knörr (EHUko Euskal Filologiako katedratikoa, Euskaltzaindiko Lehendakariordea eta Iruña Okako Ikerketa Batzordekidea)

Henrikeren heriotzaren albistea gai hau prestatzen ari ginen unean jaso dugu. Ikerketa Batzordeko hizkuntzalaria izanik, harridura handiz ikusi zuen Ikerketa Batzordeko beste hizkuntzalariak –Joaquin Gorrotxategik eta Joseba Lakarra- prentsaren bidez eta datazioak eta azterketa amaitu baino lehen idazkunen gainean zalantzak zabaldu izana. Berak hau adierazi zuen hasieran:

- Hizkuntzalaritzatik ez gara asko harritu, aurkitutako hitzak gaur egungo euskaratik hurbil daudelako. Agian deigarriena ‘zutan’ hitzaren ‘z’ da, garai horretan ‘s’ erabiltzen zelako. ‘Mirian’ hitzaren ekialdeko ukitua dauka Testamentu Berrian ‘Maria’ erabiltzen delako.
- Koldo Mitxelenak aitzineko euskararen lekukotasunen faltagatik kezkatuta zegoen. Pozik jarriko litzateke aurkikuntza honekin: 100 bat hitz eta 70 esaldi labur.

Gorrotxategik eta Lakarrak esandakoaren ostean hau aipatu zuen:

- Ulertzen dut nire irakaslekideen zuhurtzia baina ez dut uste Eliseo Gilen arkeologoen taldeaz mesfidatu behar dugunik. Nik aurkitutakoaz eta idazkunen datazioaz ez dagoela ia zalantzarik esango nuke.
- *Iankoari* buruz, Lakarrak esandakoari erantzuten dio: Beheko inperioko latinezko literaturan adjektibo erakusleak agertzen direla ezaguna da: *illa domus*, nolabaiteko artikulua predeterminatuaren funtzioa betetzen dutenak. Zergatik ezin da IV edo V mendeko euskaran antzekorik gertatu?

Henrikek azterketa amaitu arte itxaron behar zela esaten zuen. Goian Bego.

b) Ikerketa Batzordearen erantzun ofiziala

Ondoren, Ikerketa Batzordek prentsaurre bat eman zuen egindako azterketa arkeologikoen zilegitasuna argi uzteko. 2007ko azaroaren 24ean egin zen. Emandako erantzuna osorik jarri dugu:

Ohartzen gara berriki Iruña-Veleian egin diren aurkikuntzek zalaparta handia eragin dutela, hala hedabideetan nola herri-iritzian.

Ikerketa-talde ofizialak behin baino gehiagotan lasaitasuna eskatu duen arren, halako irrika-sentipen bat jalki da, hedabideen bitartez eraturik. Sentipen hori, guztiz bidezkoa den zio bat badu ere (jakiteko nahia, begiztatzen diren berritasun harrigarriekiko jakin-mina), hutsal bihurtu da maneretan, ia gaitzespeneraino iritsiz ere, edo ezbaian jarritz profesional batzuen izen ona, edo Arkeologia, jakintza-adar zientifiko hori, edo, are larriago dena, zalantzan ezarriz gure kultura-ondarea bera.

Arkeologia-ikerakuntzak, beste edozein ikerakuntza motak bezala, berezko metodologia eta prozedurak ditu, berezko protokoloak eta denborak, eta horiek ez datoz bat, nahitaez, haren emaitzen zabalkunde publikoaren denborekin.

Hortaz, gure iritziz, guztiz arduragabeak dira, eta gutxi dokumentatuak –espresuki aitortu den bezala–, azken aldian –ez dakigu zer helbururekin– prentsan argitaratu diren zenbait iritzi eta artikulua. Harrigarria bada ere, «iritzi-egoera» interesatu bat elikatu nahi dutela dirudi, Iruña-Veleiako multzo arkeologikoan egin diren aurkikuntzen



baliozkotasuna ezbaian jartzeko eta haien benetakotasunaren inguruan zalantza-susmoa sortzeko edo. Hori dela eta, aztarnategian diharduen ikerkuntza-taldeak eta haren zientzia-lankideek beharrezkotzat jo dute honako adierazpen ofizial hau zabaltzea.

Material arkeologiko bat gehiago: horixe da mintzagai dugun aurkikuntza sorta; duela urte askoz geroztik ikertu eta arreta handiz aztertzen ari den aztarnategi baten –Iruña-Veleiako aztarnategiaren– erregistro estratigrafikoaren indusketa-prozesuan zehar behar bezala dokumentaturiko material arkeologiko bat. Erromatar garaiko materialak dira, haien kronologia bereko milaka ebidentziarekin batera ageri direnak; erromatar garaiko geruzetan aurkitu dira, erromatar garaiko beste maila batzuen azpian estalirik. Gainera, analisirako teknika arras espezializatuak aplikatu zaizkie, eta teknika horiek frogatu dute grafitoak eginak zeudela lur azpian geratu zirenean, hots –berriro diogu–, erromatar garaian. Larria da, oso larria benetan, lehenengo aldia baita euskal Arkeologian (Arkeologiaz ari gara: zientziaz, metodoaz, ez jatorri lausoko aurkikuntza ustekabekoez) zalantzan jartzen direla metodo arkeologikoa eta balioztatze-analisiak, eta zalantzan ere, beraz, urteetako ikerkuntza-programa baten eta ahalegin handien emaitza zuzena den aurkikuntza bati loturiko arkeologo eta espezialisten profesionaltasuna eta izen ona.

Puntu honetara iritsirik, aurkikuntzaren inguruko zenbait errealitate azalduko ditugu:

- Aurkikuntzak Iruña-Veleiako arkeologia-aztarnategian gertatu dira. Aztarnategi hori giltzarri da Euskal Kultura-Ondarean, 1.500 urtetik gorako historia jarraikiaren lekukotasunak biltzen baititu, K.a. lehen milurtekoaren hasieratik erromatar gariaren hondarrerrainokoak, Erdi Aroko amaialdia ahaztu gabe. Aipagarria da zorupearen kontserbazio-maila bikaina, ia ez baitu izan nekazaritza-lanen eraginik; beste abantaila bat ere badu, gaur egun arte ez baita han jenderik bizi izan.
- Ez da ahaztu behar aurkikunde hau aztarnategia ikertzeko, hondeatzeko eta hari balioa eransteko proiektu baten garatze-lanen barruan sartzen dela. Lan horiek 1994az geroztik ari da egiten E. Gil zuzendari duen arkeologo-lantalde bat, Arabako Foru Aldundiaren (AFA) baimenarekin, erakunde hori baita, gainera, arkeologia-multzoaren zati handi baten jabea, eta aurkikundeen gordetzaileria, Arabako Arkeologia Museoaren bidez. 2001aren hondarrean, hitzarmena izenpetu zen Eusko Jaurlaritzaren Garraio eta Herri Lan Sailaren mendeko Euskotren baltzu publikoarekin, proiektu espezifiko bat finantzatzeko (Iruña-Veleia III. Milenioa). Proiektu hori hamar urteko denbora-esparruan ari da gauzatzen, AFArekiko lankidetzan. Duela gutxi, 2005ean, Iruña Okako Udalaren bitartez, «Iruña-Veleiari buruzko azterlan historiko-arkeologikoa» burutu da, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren finantzazioaz eta AFAREN lankidetzarekin. Esparru horretan egin dira, hain zuzen ere, orain eskuartean ditugun aurkikuntzak, beste milaka arkeologia-ebidentziarekin batera, ez baita ahaztu behar.
- Hizpide dugun aurkikuntza, beraz, grafito sorta ugari bat da –idazkunak eta marrazkiak, euskarri desberdinen gainean irarriak–, ohiz kanpokoak oso, haietan ageri diren testu eta gaiak direla eta. Arabar antzinateko hiri (ez erabil, otoi, «erromatar herrixka» esapidea) izan zenaren puntu desberdinetan aurkitu dira grafitoak. Iruña-Veleiako orubeko aurkikuntzak gero eta ugariagoak izatea erronka izan daiteke ikerketarako, baina inola ere ez arazo. Irrigarria litzateke hori, hala nola pentsatzea *Homo antecessor*-aren aurkikuntzak fidagarritasun gutxiago duela, Atapuercan antzinako arbaso horren zenbait ale aurkitu direlako, bat bakarra aurkitu beharrean.
- Dokumentaturiko kasu guzti-guztietan, aztarnategiaren sekuentzia estratigrafikoak bermatzen du grafitoak erromatar garaikoak direla. Hau da: lurpean aurkitu dira (batzuk, gainera, oso sakonera handian), erromatar garaian eraturiko lur-geruzetan, eta orobat erromatar garaikoak diren beste geruza batzuen azpian estalirik.



- Geruza bakoitzaren datazioa, berriz, hark sekuentzia estratigrafikoan duen kokagunean eta haren barruan ageri diren materialetan oinarritzen da. Hau da: unitate estratigrafiko bakoitza eta haren ingurukoak zorupean nola kokatzen diren aztertuz, horiek denboran zehar zer-nolako kronologia-hurrenkeraz metatu ziren zehatz dezakegu; hortaz, lehenetasun- eta gerokotasun-erlazio egokiak mugatu daitezke. Metatze-hurrenkeraren horretan geroagoko aldaketaren baten eraginik izatekotan, den modukoa dela –esate baterako, murrutik bat eraiki bazen, edo haur bat ehortzi, edo harrapaketa-zulo bat egin–, halakoei inolako arazorik gabe antzematen die arkeologo trebatuak indusketa-prozesuan zehar. Bestalde, ezinbestekoa da finkatuz doan sekuentzia estratigrafiko hori bat etortzea geruza bakoitzaren barruan ageri diren materialekin. Beraz, A geruza bat B geruza baino geroagokoa dela mugatzen badugu, B geruzako materialak ezin dira A geruzakoak baino berriagoak izan.

- Hartara, geruza desberdinei loturiko ebidentzia materialek geruzak kronologia-zehaztasunez kokatzea ahalbidetzen digute. Iruña-Veleiako grafitoen kasu zehatzean, gehienak K.o. III. mendean eraturiko geruzetan aurkitu dira, ziurtasunez dakigun arren gertakaria K.o. V. mendera arte luzatu zela.

- Ebidentzia arkeologikoei eskaintzen diguten datazioa, zeinak, orobat, geruzak datatzea ahalbidetzen baitigu, C14aren analisi egokiek berretsi dute (analisiak Geochron laborategietan egin dira, AEBko Cambridge-n, Massachusetts-en, eta Groningen Unibertsitatearen Centre for Isotope Research-en, Herbehereetan). Indusketetan oso ohikoak dira analisi horiek. Badakigu, ordea, mota horretako ikerketak elementu organiko bakoitzaren ezin zaizkiela aplikatu (gure kasuan, hezurrei eta zur ikaztuari), eta halakoei heriotzaren unea datatzen digutela. Orobat, termolumineszentziak (Krakoviako Unibertsitateko laborategiak, Polonian) zeramika, adreilu eta abarren egoketaren unea datatzen du, edo elementu horiek suaren eraginpean izan ziren azken aldia (sute handiren bat izan bazen, adibidez). Proba suntsitzaileak direnez, ez zaizkie –jakina– grafitodun ebidentziei aplikatu.

- Hartara, estratigrafiak eta hari loturiko materialek eskaintzen dizkiguten datuetan oinarriturik zehazten da grafitoen datazioa. Grafitoak, beraz, haien maila estratigrafikoa erromatar garaiko beste geruza batzuen azpian hondoraturik geratu baino lehen egin bide ziren, grafitoen gordailua sortu zen unea baino geroago eratuak baitira, jakina, azken geruza horiek.

- Bestalde, berriazko analisiak aplikatu dira hain ohiz kanpokoak diren ebidentzia hauentzat, teknologia arras espezializatua baliatuz, errepikagarria erabat, eta halakoetan beharrezkoak diren jarduera-protokolo guztiak jarraituz. Esan dezakegu material arkeologiko gutxi jasan behar izan dutela Iruña-Veleiako grafitoen gainean erabili denaren pareko ikuskatze- eta egiaztatze-maila. Analisi nagusiak Frantzia egin dira, CEA-CNRSren espektroskopia nuklearreko laborategietan; egiaztatze-analisiak, berriz, Zamudioko teknologia-elkartegiko Adirondack laborategietan. Asko laburbilduz, hauxe egin da: grafitodun ebidentzia horien azaleko patina aztertu da, eta horri esker mugatu ahal izan da ezen, material hori lurpean «ehortzirik» geratu zenean (eta, esan bezala, badakigu noiz gertatu zen hori), grafitoak eginak zeudela jada. Hala, azaleko patina hori aztertu, eta hau ikusi da: material horiek guk –zorionez guri egokitu baitzaigu– ikertu eta dokumentatu dugun sekuentzia estratigrafikoan txertaturik geratu ziren une berekoak direla grafitoak, kasu guztietan. Gainera, patina horrek eboluzio kimiko bat erakusten du; zehazki, aldaketa bat elementu batzuetako katioien tasan. Bakarrik denboraren joanak sortzen du aldaketa hori, hau da, teknikoki ezinezkoa da hura laborategian erreproduzitzea; bestela esan: ezin da faltsutu.

Azaldu ditugun puntu guztiak errealitateak dira, berenez; zientifikoki frogatuak eta errealitateak.



Beraz, erromatar garaiko ebidentzia materialak ditugu aurrean: elementu fisikoak, ukigarriak, aztergarriak, zientifikoki egiaztatuak. Hori onartu egin behar da, eta puntu horretatik aurrera eta ikuspegi horrekin izango ditugu bai gaitasuna eta bai heldutasun zientifikoa tartean diren jakintza-adarretako ikerketei ekiteko, eta bidean sor daitezkeen arazoen gainean eta arazoon interpretazioaren eta ebazpenaren gainean lan egiteko. Gogoia zabal izan behar du ikertzaileak, aurkikuntza berriek ekar ditzaketan erronkei aurre egiteko; ez luke, besterik gabe, den-dena ukatu behar, «axioma orokorretan» (hots, frogatzerik behar ez duten proposizio agerikoetan) edo «hori ez da espero genuena» ren gisako sasi-arrazoibideetan oinarriturik.

Ezinbestekoa den interpretazio historikoak hipotesi eta azalpenak ekarriko ditu Iruña-Veleiako *bibliotekak* (zilegi bekigu esapide hori) planteatzen dituen fenomenoentzat. Jakintza-adarrek beren ikuspuntua emango dute, eta multzoaren interpretazioa aberastuko; jakina, errealitatea apriorismoetan «ahokatzen» saiatu gabe, zein ere ero-soak, onartuak eta finkatuak diren apriorismo horiek. Helburua da zientziek aurrera egitea.

Eta, orain, lan eta lan aritzea dugu eginkizun. Edozein kasutan, gizartea lasaitzea izan da gure helburua, Iruña-Veleian aurkituriko grafitoak benetakoak direla eta, orobat, erromatar garaikoak direla berretsiz, gizartea ere partaide izan dadin, gurekin batera, aurkikuntza berezi honetan. Ikerketa-lantaldea osatzen dugun kideak oro lanean dihardugu, jada, plan zehatz baten esparruan, eta plan horrek bere protokoloa behar du, bere jarduera-sekuentzia eta, jakina, bere epeak. Hori dela eta, guk ere eskatzen dugu lasaitasuna, eta ikerketarekin aurrera egiten utz diezaguten, hark behar duen denborarekin.

Eliseo Gil Zubillaga, arkeologoa, Iruña-Veleiako indusketen zuzendaria.
Idoia Filloy Nieva, arkeologoa, Iruña-Veleiako indusketen zuzendarikidea
Juan Santos Yanguas, EHUko Antzinateko Historiako katedraduna
Henrike Knörr, euskaltzaina, EHUko Euskal Filologiako katedraduna
Rubén Cerdán, fisikari nuklearra, Iruña-Veleiako materialen gaineko analisisien koordinatzailea
Emilio Illarregi, arkeologoa, SEK nazioarteko unibertsitatearen Segoviako campuseko irakaslea.
Zoilo Calleja Arabako Elizbarrutiko Ondare-arduraduna

Iruña-Veleiako ikerkuntza-taldeko kide eta lankideak

7. EUSKARAREN JATORRIAREN ADIERAZPENA

Euskararen Jatorriaren elkarteak, biltzar hau prestatzeko bileran, gai honen inguruan hainbat gogoeta egin zituen, 2007ko abenduan, Durangon. Gogoeta horiek adierazpen batean jaso egin ziren:

1. Izena. Antzineko hiri honi, Brontze Garaitik okupatuta, *Veleia* izena ere jarri zaio, erromatar garaiko izena, ziurtatuta ez badago ere *Veleia Iruña Oka* izan zenik. Herriak azken mende hauetan “*Iruña*” esan dio ingurune hori, eta ez da inoiz *Veleia* izan inguruko biztanleentzat, nahiz eta euskara orain dela 200 urte inguru galdu.

Horregatik, izena zuzendu eta *Iruña Oka* izan dadila eskatzen dugu, beti horrela deitu izan delako, sortu zenean eta azken mendeotan, eta baita ere, udalerraren izen ofiziala horrela delako.

2. Indusketak. Arkeologoek, orain urte bat baino gehiago, euskarazko idazkunak aurkitu dituzte, erromatarren idazkeraz idatzita, Iruña hiriak izan zuen zabaleraren %1 arakatu ondoren.



Euskararako, Euskal Herrirako, inguruko herrialdeetarako eta Europarako hain aurkikuntza garrantzitsua izanik, nola ez da egin orain arte indusketa plan handigura bat, hiri guztia epe egoki batean (10-15 urte) aztertzeko? Euskal Herriko hiririk handiena izan omen zen (10.000 biztanle izan ei zuen orain 2.000 urte) eta epe labur-laburrean desagertu zen. Agian gure historiako gako garrantzitsuenetako gordetzen du eta orain arte ezikusiena egin dugu. Noiz arte?

3. Idazkunak. Egindako datazioen arabera, idazkunak Kristo osteko III. Mendekoak ei dira. Atzerriko hiru laborategiek data hauek baieztatu dizkigute. Idazkun hauek ez dira Euskal Herriko Ondarea bakarrik, mundu mailako Ondarea ere bada, eman dezaketen informazio historiko, linguistiko, erlijioso eta abar oso garrantzitsuak direlako.

Orain arte informazio gutxi eman da, emandakoa filtrazioen bidez atera da eta ez dago ezer eskuragarri. Gainera, datorren urtera arte ez dute ikerketako informazio osoa emango: idazkunen testuak, interpretazioak, testuinguruak, etab. Denbora gehiegi da, herritarrak zain egoteko.

Denbora hau laburtzea eta beharrezkoak diren baliabide teknikoak jartzea eskatzen dugu.

4. Hizkuntzalariak. Idazkun hauen kopia batzuk, hizkuntzalari gutxi batzuei eman zaizkie eta urtebete luze pasatu ondoren, euren ondorioak oraindik ez ditugu ezagutzen: esanahi literala eta historikoa, Euskal Herriko eta inguruko herrien testuinguruan kokatuta.

Agian urtebete barru, ikerketaren emaitzak ematen direnean zerbait izango dugu baina parte hartzen ari den hizkuntzalari taldea ikusita, murriztegia iruditzen zaigu, ez bakarrik kopuruagatik, duten euskararen ikuspegiagatik ere bai. Izan ere, ikerlari hauek Koldo Mitxelenaren eskolakoak izanik, euskararen gaur egungo ikuspegi ofiziala dute. Horren arabera, euskara hizkuntza isolatua izan zen eta inguruko herrien hizkuntzekin ezer gutxi jaso zuen erromatarren garaia iritsi arte. Uste sendoa dugu, Iruña Okako aurkikuntzek zalantza jarriko dutela orain arte "indarrean" dauden hainbat pentsaera.

Hizkuntzalari taldea zabaltzea eta bertan Euskal Herriko ez gain, atzerriko hizkuntzalariak ere laguntzea eskatzen dugu. Ikuspuntu desberdineko hizkuntzalariak nahi ditugu taldean, ez lerro bakarrekoak. Horrelakoa egiten ez bada, material asko ezkatuta edota balio gabe utzita, alde batera geratuko delakoan gaude

5. Gainerako ikerketa taldea. Arlo asko ukitzen ditu ikerketa honek eta orain arte arkeologo, historialari eta hizkuntzalari gutxiegi egon dira, dagoen erronka honi erantzuteko.

Horregatik, Nazioarteko Ikerketa Talde bat antolatzea eskatzen dugu, Euskal Herri eta Europako adituez osatuta.

6. Ikerketaren sozializazioa. Horrelako ikerketek lasaitasuna eta diskrezio maila bat behar dutela jakinda ere, behin informazioa zabaldu ondoren, beste modu batera kudeatu behar izan da hau, batez ere, datazioak egiaztatu direnean.

Horren tamainako aurkikuntza egotea, ondoren dena isilpean eramatea... ez da egokia kultur maila handiko eta herritarrenganako errespetuan oinarritutako herrialdetan.

Orain arte aurkitutako testu, argazki eta bestelako material grafikoa eta euren kontextualizazioa publiko egitea eskatzen dugu, ikerketa osoa amaitu arte itxaron gabe.

Interneten webgune bat irekita egon beharko litzateke jadanik, material guztia kokatzeko, jendeak parte hartzeko maila desberdinetan (adituak, herritarrak...), ikerketa kudeatzeko



(kanpokoan parte hartzea erraztea...) etab. Beste aurkikuntzak, Lazarragarena esaterako, denbora laburragoan jarri da denon eskura, zorionez.

7. Finantzazioa. Orain arte Iruña Okako indusketa finantzatu duten erakundeak ikusita, Eusko Trenbideak babesle nagusia izan dela ikusteak harridura handia sortzen du. Gasteizen tranbia ez jartzean, Eusko Trenbideek Araban publizitatea egitea erabaki zuen, Tau Baskoniaren babesle gisa jarriz eta Iruña Okako indusketak sustatuz. Gure hiri zaharra ikertzen hasteko txiripaz egon da dirua.

Eusko Trenbideei eskerrak eman nahi dizkiegu Iruña Okako indusketan sinisteagatik baina, ordua da, Arabako Aldundiko eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak proiektu hau behar bezala babes dezaten. Gasteizko Katedraleko birgaitze eta indusketan, dirutza jarri da. Bien arteko finantzazio eta balio historiko, linguistiko eta erlijiosoak ikusita, alde izugarria dago. Enpresek ere, euskararen alde zerbait egitekotan, aukera paregabea dute laguntzeko Iruña Okan.

Finantza dezagun gure hizkuntzaren eta historiaren atal garrantzitsuenetako hau argitzeko ikerketa!

8. Eskaera erakundeei. Guzti honengatik, ikerketa hau zuzentzen ari den taldeari, Arabako Foru Aldundiko eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailei, Europako Batasunari eta Unescori egindako eskaerak kontuan hartzea eskatzen diegu.

8. IKERKETA TALDE BERRITU ETA OSATUA

2008ko urtarrilaren 18an Arabako Foru Aldundiak sortutako batzorde zientifikoaren berri ematen zuen. Batzorde honen zeregina epe laburrean (uda honetan aipatzen da) idazkunen benetakotasunari buruzko txosten bat egitea izango da. Honela zekarren albistearen prentsan:

Arabako Batzarretan joan den astean egindako agerraldian, Eliseo Gilek Foru Aldundiaren parte-hartze handiagoa eskatu zuen, eta badirudi Aldundiak erantzun egingo duela. Lehen urratsa, hala ere, indusketan agertutako ostraka eta idazkunen benetakotasunari buruzko txosten sendoa egitea izango da. Foru Aldundiko arduradunek horixe jarri diote taldeari lehen egin beharra, eta, horretarako, hainbat adituk osatutako batzorde zientifikoa eratzea erabaki du.

Bertan egoteko deia jaso dute Joaquin Gorrotxategi, Joseba Lakarra eta Henrike Knorr hizkuntzalari eta filologoek, Santos Yanguas historialariak, Agustin Azkarate eta Julio Nuñez arkeologoek, Fernando Legarda eta Juan Manuel Madariaga kimikariek, Pilar Cipres epigrafistak, Andres Valdeon arkeologoak eta Felix Lopez Museoen zerbitzuko buruak. Batzordearen zeregina aztarnak berraztertu eta haiei buruzko iritzia ematea izango da. Horretarako, Diputaziotik jakinarazi dutenez, «epe laburrean» hasiko dira aditu guztiak lanean.

Batzordea Euskara, Kultura eta Kiroletako Foru Diputatua, Lorena Lopez de Lacallek zuzenduko du. Batzorde honek beharrezko ikusten dituen adituei kontsultak eskatzeko eskumena izango du eta, gutxienez, honako alorretan jardungo du: Historia, Fisika, Kimika, Arkeologia, Hizkuntzalaritza eta Epigrafia.

Lorenak bere poztasuna adierazi zuen lan batzorde honengatik, adostasun zientifiko bati heltzeko aukera izango dugulako. Gainera, Eusko Jaurlaritzak lan prozesu honetan parte hartzeko borondatea erakutsi izana eskertu egin zuen.

Agerraldi berean, indusketetarako eta proiektu berrietarako baliabide eta aurrekontu handiagoa eskatu zuen Eliseo Gilek. Aldundiko iturriek bat egin dute, oro har,



aztarnategiari buruzko egitasmo berriekin, baina Fundazioa osatu eta nazioarteko kongresua antolatzeko urratsak, betiere, batzordeak egin beharko lukeen onespena eta gero etorriko litzateke. Nolanahi ere, zuzendariarengan «erabateko konfiantza» berretsi dute foru arduradunek.

9. BIBLIOGRAFIA ETA ITURRIAK

Laburpen hau prestatzeko honako iturriak erabili dira: Berria, Gara, Diario de Alava, Correo, Deia, Geu Gasteiz, Celtiberia (Alicia Cantoren laburpena oinarrietako bat izan da) eta Terraeantiquae. Denei mila esker gai honen garrantzia zabaltzeagatik.

Alicia Cantoren laburpena

<http://www.celtiberia.net/articulo.asp?id=2372>

Filtrazioa: 2006.05.27

<http://www.elcorreodigital.com/vizcaya/pg060527/prensa/noticias/Sociedad/200605/27/VIZ-SOC-061.html>

Celtiberian argitaratutakoa

<http://www.celtiberia.net/articulo.asp?id=2042>

<http://www.celtiberia.net/articulo.asp?id=2364>

<http://www.celtiberia.net/articulo.asp?id=2474>

<http://www.celtiberia.net/articulo.asp?id=2639>

<http://www.celtiberia.net/articulo.asp?id=2768>

<http://www.celtiberia.net/articulo.asp?id=2894>

<http://www.celtiberia.net/articulo.asp?id=3119>

Terraeantiquae 2006.12.20

<http://terraeantiquae.blogia.com/2006/060801-alava.-iruna-veleia-desentierra-jeroglificos-y-grafias-en-latin-de-la-historia-d.php>

Aurkikuntza

http://www.berria.info/edizioa_ikusi.php?id=15036

http://www.elpais.com/articulo/pais/vasco/yacimiento/Veleia/apuntaba/maneras/tiempo/elpepuesppvs/20061126elpvas_7/Tes

Euskarazko hitzak

<http://www.noticiasdealava.com/ediciones/2006/06/16/sociedad/alava/d16ala8.380988.php>

<http://www.noticiasdegipuzkoa.com/ediciones/2006/11/10/mirarte/cultura/d10cul72.367631.php>

Kalbarioa

<http://www.elcorreodigital.com/vizcaya/pg060609/prensa/noticias/Sociedad/200606/09/VIZ-SOC-063.html>

<http://www.celtiberia.net/articulo.asp?id=2042>

Hitz edo gai erlijiosoak

<http://www.noticiasdealava.com/ediciones/2006/06/11/sociedad/alava/d11ala6.377542.php>

<http://www.noticiasdealava.com/ediciones/2006/06/16/sociedad/alava/d16ala6.381017.php>

<http://www.noticiasdealava.com/ediciones/2006/06/16/sociedad/alava/d16ala6.381019.php>

Eguneroko bizitza

<http://www.noticiasdealava.com/ediciones/2006/06/09/sociedad/alava/d09ala14.375086b.php>

<http://www.noticiasdealava.com/ediciones/2006/06/09/sociedad/alava/d09ala8.375094.php>



Infografia

<http://www.elcorreodigital.com/apoyos/graficos/cultura/yacimiento-romano-iruna-veleia.htm>

Elkarrizketak

Eliseo Gil

http://www.berria.info/testua_ikusi.php?saila=plaza&data=2006-06-20&orria=042&kont=340

<http://www.geugasteiz.com/aldizkaria/aldizkaria.asp?NewsID=167>

Juan Santos Yanguas, EHU-Historia irakaslea: azterketa epigrafikoa

(<http://www.diariovasco.com/pg060613/prensa/noticias/Cultura/200606/13/DVA-CUL-293.html>)

Egipziar jatorriko irakaslea, hieroglifikoak

<http://www.noticiasdealava.com/ediciones/2006/06/09/sociedad/alava/d09ala14.375086.php>

<http://www.noticiasdealava.com/ediciones/2006/06/09/sociedad/alava/d09ala14.375087.php>

http://www.iberiacunadela humanidad.net/Veleia_archivos/image002.jpg

<http://www.gara.net/paperezkoa/20080120/58671/eu/Egiptoko/erregina/bat/azken-aurreko/eztabaidan/protagonista/>

Zalantzak

<http://terraeantiquae.blogia.com/2008/012001-destacados-expertos-discrepan-abiertamente-sobre-los-hallazgos-de-iruna-veleia.php>

<http://www.gara.net/paperezkoa/20080120/58672/es/La/palabra/Nefertiti/es/una/convencion/moderna%BB/>

http://www.elcorreodigital.com/vizcaya/prensa/20061119/sociedad/estoy-seguro-textos-veleia_20061119.html

Datazioak

<http://www.deia.es/es/digital/cultura/2006/11/24/311557.php>

http://www.elpais.com/articulo/pais/vasco/Laboratorios/internacionales/confirman/inscripciones/Veleia/siglo/III/elpepuesppvs/20061125elpvas_12/Tes/

Aholkularitzako Batzorde Zientifikoa

<http://www.gara.net/paperezkoa/20080120/58669/es/Destacados-expertos-discrepan-abiertamente-sobre-hallazgos-Iruna-Veleia>

